



Basque Research
Euskal I+G+Baren webgunea

Kontaktua:

Mikel de Francisco
HAZI Fundazioa

Harremanetarako datuak:

Mdefrancisco@gmail.com
(+34) 945003240



2014/5/29

Karramarro gorriaren milaka ale aterako dituzte Arreo-Caicedo Yusoko lakutik

LIFE – TREMEDAL proiektu europarrean aurreikusitako ekintzen barruan, hasi dira jada Arreo-Caicedo Yusoko lakutik karramarro gorrien kopuru handi bat (*Procambarus clarkii*) ateratzeko lanak, espezie inbaditzaile horrek bertako landaretzari eta faunari arazo larriak eragiten dizkie eta. Ekintza horren bitartez, leku horretan kolonia ugaria ezartzeko habitata ezin hobea aurkitu duten karramarro horien milaka ale harrapatzea espero da.

Euskal Autonomia Erkidegoko uretan karramarro gorriak egotea ingurumenerako arazo handia izatera heldu da azkenean. Amerikako kontinentearen iparraldetik datorren espezie inbaditzaile horrek landare, intsektu eta arrainen zein anfibioen arrautza eta larbak kontsumitzen ditu, kantitate handietan; beraz, arrisku larriak dakartza bertako landareen, laboreen eta faunaren kontserbaziorako.

Arreo-Caicedo Yusoko lakua, zeina Araba hegoaldean baitago, karramarro horien populazio ugari batek kolonizatua du. Iaz, LIFE –TREMEDAL europar proiektuaren baitan aurreikusitako ekintzetako bat izan zen espeziea kontrolatzeko lehen proba bat egitea, karramarro horren ale batzuk kendu eta lakuan bizi ziren karramarroen populazioaren neurria zenbateteko.

Hiru egunetan bakarrik, 16 butroi erabilita (karramarroak harrapatzeko tranpak), 2.200 ale baino gehiago harrapatu zituzten. Emaitzek aurreikuspenak gainditu zituzten, eta, horren ondorioz, 2014 eta 2015ean lakutik karramarroen aleak ateratzeko hasieran

kalkulatu ziren ahaleginak areagotzeko premia ikusi zuten.

Lakuko karramarro gorrien populazioa murrizteko, bi urte horietan, 140 egunetan, egunero 50 butroi baino gehiago jarriko dira. Lakuan egingo diren lan horien osagarri gisa, Ebro ibaiarekiko konexioa den errekan ere beste lan batzuk egingo dira, espezieak ibaiaren ibilbidetik gora egin ez dezan.

Beste espezie inbaditzaile batzuk

Karramarro gorriaz gain, lakuan karpa, black-bass eta eguzki-arrain ugari bizi dira, eta horiek denak espezie inbaditzaileak dira, eta ingurumenerako arazoak ekarri eta bertan bizi den espezie bakarraren populazioa, tenkarena, mugatzen dute.

Proiektuaren bitartez, arrain aloktono horien kontrola egingo da. Kasu honetan, ez da beharrezkoa izan arrain inbaditzaileen hasierako diagnostikoa egitea, Uraren Euskal Agentziak azterketa hori eginga zuelako 2011n, baina 2015ean, faunaren kontrolerako lanak amaitzen direnean, azterketa egingo da berriro. Diagnostiko horretarako, funtsean, sareen bidez eta arrantza elektrikoaren bidez egindako harrapaketen emaitzak erabiliko dira, bai eta sonar-sistema berezi batez detektatutako arrain-fauna ere.

LIFE+ TREMEDAL proiektua

Leku batzuetan, zohikaztegiak eta istildu daitezkeen beste lur batzuk izendatzeko erabiltzen den hitza da TREMEDAL; leku horiek trampal (euskaraz zingira) izenez ere ezagutzen dira, leku horietan erraza baita pertsonak edo abereak ez aurrera, ez atzera, gelditzea.

Habitat horiek, non uraren funtzioa oso nabarmena baita, oso ezagunak dira Europa iparraldean, baina Iberiar Penintsulan, ordea, ez dira hainbeste ezagutzen, ezta hainbeste aintzatesten ere. Hori dela eta, askotan hondatuta geratu dira, haien kontserbazioarekin bateragarriak ez diren jarduketak egin direlako bertan.

LIFE+ TREMEDAL proiektuak bazkide asko ditu Kantauri itsasoko ertzean, Galiziatik Nafarroaraino dauden hezegune kontinentalak zaintzeko, eta proiektuko partaide diren autonomia-erkidegoetako hainbat erakunde arduratzen dira proiektua garatzeaz.

Proiektuaren helburu orokorra da hezegune horien kontserbazio-egoera hobetzea, lehengoratzeko ekintzen bitartez eta kudeaketa-neurriak praktikan jarritz. Euskadiren kasuan, Jaizkibel eta Usabelartza guneak, Gipuzkoan, eta Arreo-Caicedo Yusoko lakua, Araban, dira proiektua garatzeko aukeratutako guneak